

# UDALAK LAGUNTZA BERRIAK JARRI DITU ABIAN MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SUSPERTZEKO

Donostiako Udalak merkataritzaren eta ostalaritzaren suspertze ekonomikorako laguntza ekonomikoen pakete berri bat ezarri du, bereziki osasun krisiak eragindakoak eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak iragarritakoen osagarri dira. Laguntzak gehienez 4.000 eurokoak izan daitezke establezimendu bakoitzeko.

Marisol Garmendia Bultzada Ekonomikoko zinegotziak adierazi duenez, "Merkataritzaren eta ostalaritzaren ordezkariekin etengabeko konexioan gaude, jakin badakigulako sektore horiek gaizki pasatzen ari direla, osasun-prebentzioaren ondorioz beharrezkoak diren itxierak zuzenean eragiten dietelako. Guretzat lehentasuna da sektore horiei laguntzea; izan ere, sektore horiek Donostiako ekonomiaren ehuneko handi bat osatzen dute, eta lanpostu askoren mende daude Donostian".

Dagoeneko eska daitezkeen laguntzen helburua lokalak eta merkataritzaren nahiz ostalaritzaren lan egiteko moduak egokitzea da. "Online plataforma bat sortzeko lanean ari gara, ostalaritzako lokalek beren menuak edo produktuak eskain ditzaten. Horretarako, negozio horiek digitalizatzen lan egin dezaketen pertsonak kontratatzen lagunduko dugu, etorkizunerako irtenbide gisa eta herritarren ohituretan ezartzen ari diren eta bizkarra eman ezin diegun salmenta eta negozio modu berrietara egokitzeko", adierazi du Garmendiak.

Beste laguntza-lerro bat lokalak take away zerbitzuak eskaintzeko egokitzapenera bideratuta dago; horretarako, manpara bereizleak eta egungo osasun-neurriak betetzeko beharrezkoak diren beste elementu batzuk jarriko dira. "Neurri horiek zehatz-mehatz eta modu eredugarrian betetzen ari dira merkataritzaren eta ostalaritzaren gehiengoa, guztion artean pandemia horri aurre egin behar diogula jakitun. Askok inbertsioak egin behar izan dituzte arauak betetzeko, eta horregatik irekitzen dugu laguntza-lerro hau, 1.000 eurora irits daitekeena eskatzen duten establezimendu bakoitzeko".

Ekonomia Suspertzeko Planaren bigarren fase hau merkataritza- eta ostalaritza-sektoreentzako laguntza zuzen gisa udaberrian ezarri ziren hiru milioi euroei gehitu behar zaie.



## **EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZEI BURUZKO INFORMAZIOA ETA KUDEAKETA**

Gainera, Donostiako Sustapenak informazioa kudeatuko du eta dagokion tramitazioan lagunduko du, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Javier Hurtado arduradunak emandako laguntza bereziei begira.

"Egia da ostalaritza eta merkataritza elkarteek laguntzen dietela elkartekideei laguntzak tramitatzen, baina guk bi sektoreen esku jartzen dugu kudeaketa eta informazio hori, elkartekideak izan ala ez", nabarmendu du Garmendiak. "40 milioi euro dira, eta hiru langile arteko ostalaritzako establezimenduek 3.000 euro jaso ditzakete; 4 eta 10 langile artekoek, 3.500 euro; eta 10 langile baino gehiagokoek, 4.000 euro".

### **PREKen LAGUNTZAK**

PREKen bigarren faseak laguntza berriak eskaintzen dizkie merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduei, behar dituzten inbertsioei eta ekipamendu berriei erantzuteko, honako hauetarako:

- Eraldaketa digitala eta negozio-eraldaketa erraztea, lan-moduak eta bezeroekiko eta hornitzaileekiko harreman berriak egokituz. Hardwarea, ekipo informatikoak, sistema eragileak, softwarea eta abar erostea inbertsioen % 80 diruz lagunduko da, gehienez 3.000 euro establezimendu bakoitzeko.
- Merkataritza-lokalak testuinguru berrira egokitze aukera ematea, segurtasun- eta osasun-protokolo berriak betez. Babes-ekipamenduak, holtzak, gel hidroalkoholkoa banatzeko aparatuak, desinfekzio-kabinak, etab. Kasu horretan ere laguntza inbertsioaren % 80koa izango da, eta gehienez 1.000 euro emango dira establezimendu bakoitzeko.

Lokalek bi kontzeptuengatik laguntzak eskatu ahal izango dituzte; beraz, gehieneko zenbatekoa ez da 4.000 eurotik gorakoa izango.

Gainera, PREKek enpresa berriak sortzeko beste laguntza batzuk (4.000 €), bonu teknologikoak (15.500 € arte) eta enpresak eraldatzeko programak (4.000 € arte) aurreikusten ditu.

Inbertsioak gauzatzeko epea 2020ko martxoaren 14tik 2020ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

